



AGINDUA, OGASUN ETA EKONOMIAKO SAILBURUARENA, OGASUN ETA EKONOMIA SAILAREN 2019KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUEN 2019KO MARTXOAREN 26KO AGINDUA ALDATZEN DUENA

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1. artikulua honako hau ezartzen du oinarriko legeriaren izaerarekin: «Administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzen ezarpena proposatzen duen edozein erakundek alde aurretik dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte berau aplikatzean lortu nahi diren helburu eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta haiek finantzatzeko iturriak ere; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta».

Ondorioz, sail honek Ogasun eta Ekonomia Sailaren 2019rako dirulaguntzen plan estrategikoa egin eta onartu zuen martxoaren 26an.

Plan Estrategiko horrek ez zituen jasotzen "Quizz 41.- Zenbat dakizu Euskadiko Kontzertu Ekonomikoaz?" Unibertsitate-lehiaketan emango diren bekak, kontuan hartuta onartu zenean oraindik lehiaketaren formatua diseinatzen ari zirela eta ez zekitela noiz egingo zen.

Unibertsitateko lehiaketaren organo kudeatzaileak bi gai horiek zehaztu ondoren, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak martxoaren 26ko Agindua aldatu behar du, saileko dirulaguntzen plan estrategikoan sartzeko aipatutako unibertsitate-lehiaketan emango diren bekak.

Horregatik, Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuak ematen dizkidan eskumenei jarraikiz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Ogasun eta Ekonomia Sailaren 2019rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen 2019ko martxoaren 26ko Aginduen eranskina aldatzea, «Quizz 41.- Zenbat dakizu Euskal Ekonomia Itunari buruz?» Unibertsitate lehiaketan emango diren bekei buruzko informazioa sartzeko.

Bigarrena. Agindua aldatzeko agindu hau Ogasun eta Ekonomia Sailaren webguneko Planak eta Proiektuak atalean eta ordenamendu juridikoan

aurreikusitako informazio- eta gardentasun-tresnetan argitaratzeko agintzea,
2019ko martxoaren 26ko Aginduarekin egin zen bezala.

Vitoria-Gasteiz,

Ogasun eta Ekonomiako sailburua
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE

ERANSKINA
Ogasun eta Ekonomia Sailaren 2019 urterako dirulaguntzen Plan
Estrategikoa

I- Atarikoa

Plan hau sail honen politika antolatzeko tresna da, helburu baitu erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea edo xede publikoren bat lortzeko bultzada ematea, horretarako dirulaguntzak emanez.

Nabarmendu beharra dago plana programatikoa dela, eta, beraz, edukiak ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen. Haren eraginkortasuna abiarazten diren dirulaguntza ildoak aurrera eramateak baldintzatuko du, eta hori, beste alderdi batzuen artean, ekitaldiko aurrekontu-baliabideen mende gongo da.

Plan hau prestatzeko, jomuga diren interes publikoak aztertu dira eta 2019an horretarako izango diren baliabideekin alderatu. Hala, geure jardute-eremuan eraginkortasuna eta efizientzia indartuko ditugu eta gardentasuna sendotu.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau taxutu du, 38/2003 Legean ezarritakoaren ildotik, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren dirulaguntzen plan estrategikoak prestatzeari buruzko 01/15 Zirkularreko jarraibideak oinarri hartuta.

II. Planaren eremu objektiboa, instituzionala eta iraupena.

Ogasun eta Ekonomia Sailak bere eskumenak erabiliz kudeatzen dituen dirulaguntzak biltzen ditu plan honek. Eskumen horiek 24/2016 Dekretuan daude jasota, 10. artikuluan, eta honako alor hauei buruzkoak dira: finantza-politika eta finantza-erakundeekiko harremanak, berme emateak, aseguruaren bitartekotza-jarduera kontrolatzea, gizarte-aurreikuspeneko erakundeak eta eskualde-politika.

Dirulaguntza kontzeptuaren barruan, Planak 38/2003 Legearen 3. artikuluan jasotzen diren gauzako laguntzak biltzen ditu, adibidez sariak (onuradunak aurretik eskatu gabe emandakoak salbuetsita), eta eskatzaileak betetako jarduerak aintzat hartuta ematen diren beste zenbait laguntza.

Denbora-eremuari dagokionez, abian den 2019. urterako aurreikuspenak jasotzen ditu planak.

III. Planteatu diren helburu nagusiak.

Askotariko helburuak bete nahi ditu sail honek sustapen-jarduerarekin, aipatutako 24/2016 Dekretuak esleitutako eskumen-eremuak kontuan hartuta.

- Borondatezko gizarte-aurreikuspena sustatu eta bultzatzea

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legeak, 78. artikuluan, ezartzen du Eusko Jaurlaritzak sustapen-neurriak jarriko dituela herritarren artean eta, bereziki, enpresen, langileen eta gizarte-eragileen artean borondatezko gizarte-aurreikuspenaren inguruko kontzientzia zabaltzeko. Xede hori betetzeko asmoz, unibertsitateekin, sindikatuarekin, patronalen elkarteekin eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko sektorearekin lankidetzak programak aurrera eramatea proposatuko da. Legearen 75. artikulua, bestalde, ezartzen du federazioei dagokiela, beste eginkizun batzuen artean, aholkularitza eta laguntza ematea arlo juridiko-fiskalean, kontabilitate-arloan, arlo ekonomiko-finantzarioan eta teknikoan, bai eta interes orokorreko beste edozein arlotan ere; haiei dagokie, halaber, borondatezko gizarte-aurreikuspena sustatu eta horren gaineko prestakuntza bultzatzea.

Horregatik, 2018. urterako Euskadiko aurrekontu orokorrek, abenduaren 22ko 5/2017 Legearen bitartez onartuek, dirulaguntza izendun bat emango diote Euskadiko BGAEen Federazioari, federazioak gizarte-aurreikuspen osagarria sustatzen eta jendarteratzen betetzen duen lanak eragindako gastuak ordaintzeko, bai eta gai horri buruzko prestakuntza ikastaroak antolatu eta emateko lanen gastuak ordaintzeko ere.

Bestalde, abenduaren 12ko 252/2006 Dekretuaren harira, (borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen bidez bideraturiko aurreikuspen sozialeko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak arautzen baititu) beste BGAE batzuk, zehazki, enplegurako BGAEak, sortzeko laguntza emango da, Dekretu horren babesean sortuko diren aurreikuspen-sistemak eratzeko eta martxan jartzeko gastuak ordaintzen lagunduko diegu, bai eta horretan hasi aurreko gastuak ordaintzen ere, halaber, erakunde berrian edo gizarte-aurreikuspeneko plan berrian sartuko diren bazkideei ere zuzeneko laguntzak emango dizkiegu.

- Aseguruen bitartekaritza-jarduera sustatzea eta garatzea

Euskadiko aseguru-bitartekari tituludunen jarduera bultzatu nahi da euren prestakuntzan lagunduz. Xede horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Aseguru Bitartekari Tituludunen Kontseiluari laguntzea aurreikusi da bere funtzionamendu-gastuetan eta egiten dituen sustapen-ekintzek eragindako gastuetan; zehazki, Aseguru eta Berraseguru Pribatuetako Bitartekaritzaren uztailaren 17ko 26/2006 Legearen 39. artikulua aipatzen dituen prestakuntza-ikastaroak antolatzen egindakoengatik. Artikulu horrek ezinbestekoa du, legeak ezarritako xedeetarako, artikulua aplikatzeko duten profesionalak egiaztatzea gaitasun dutela Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez ezarritako betekizunak betetzen dituen prestakuntza-ikastaro bat edo gaitasun-proba bat, finantza-gaiei edo aseguru pribatuetako



gaiei buruzkoa. Eraginkortasunaren mesedetan, prestakuntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko Aseguru Bitartekari Tituludunen Kontseiluak antolatu eta ematea gomendatzen da, eta, helburu horrekin, sortutako gastuei aurre egiten laguntzeko dirulaguntza izendun bat emango zaio organo horri 2018. ekitaldiko Euskadiko aurrekontu orokorretan.

- Euskal enpresa txiki eta ertainen finantzaketa baldintzak hobetzea.

Helburu horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak hitzarmenak sinatu izan ditu urtero hainbat finantza-erakunderekin, finantza arloan eskumenak dituen sailaren bitartez. Hitzarmenok enpresa txiki eta ertainei zein profesionalei garantiak errazago emateko izan dira, eta administrazioak bere gain hartu du abala jaso duten enpresa eta autonomoek porrot egiteko arriskuaren zati bat. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak urteak daramatza hitzarmenak sinatzen Euskadiko elkar bermatzeko sozietateekin -gaur egun, halako ezaugarriak dituen sozietate bakarra dago Euskadin egoitza daukana- haien funts propioak sendotu aldera. Hartara, finantza-abalen eragiketak hobeto estalita egongo dira, eta finantza-abaletan gerta litezkeen zuzkidura eta kobraezinei aurre egiteko modua egongo da, eta, bide batez erakunde onuradunok bermeak emateko duten gaitasuna areagotzeko.

-Partaidetzako maileguak indartzea enpresentzako finantza-tresna eskuragarri izateko.

Luzaro Establecimiento Financiero de Credito SA 1992ko urriaren 30ean eratu zen, eta haren oinarritzko helburua euskal enpresa txiki eta ertainei partaidetzako mailegu nahiz kredituak ematea da. Mailegu mota horiek mendeko finantzaketa gisa hartuak dira, eta, beraz, sozietatearen funts propioen baliokideak dira. Bada, maileguon helburu nagusia enpresa horiek aktibo finkoetan egiten dituzten inbertsioak finantzatzea da, eta oso amortizazio epe luzea izan ohi dute -normalean, hamar urtekoa, gutxieneko bost urteko gabealdearekin-.

Luzaro SAren jarduera sustatzeko zenbait lankidetzak-hitzarmen gauzatu dira aldean artean, eta, maileguen amortizazio epe luzeen ondorioz, indarrean jarraitzen dute 2006ko abenduaren 20an, 2007ko urriaren 4an eta 2012ko ekainaren 12an sinatutakoek. 2006ko abendutik aurrera, gainera, dirulaguntzak jasotzeko aukera eskaintzen da finantza-kontsolidazio eta -berregituratze maileguetan ere.

Hitzarmen horietan Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu zuen partaidetzako maileguetako kobraezinen kopuruaren ehuneko bat bere gain hartzeko, bai eta Luzaro E.F.C S.A.-ri ordaintzeko sozietateak une oro partaidetzako maileguen eta dagozkion birfinantzazioen artean daukan diferentziala.

Asmo horrekin, ekitaldi bakoitzean formalizatuko diren maileguentzako ordainketa-kreditu bat sartu eta kontabilizatu da aurrekontuan, etorkizuneko konpromiso-kredituak biltzen dituen, maileguen bizialdi osoan dirulaguntzari aurre egiteko aurrekontu-oinarri.

Dirulaguntza, eta goian aipatutako diferentzialaren parekoa, hori Luzaro S.A.ren eskura jarri behar da aldez aurretik, hitzarmen horietan ezarritakoaren arabera, urtean bitan, urteko sei hilabeteko bakoitzean, zergaren kontu egindako ordainketan, behin betiko justifikazioa egin eta, ondoren, dagokion likidazioa egin bitartean.

- Euskadiko FEDER Plan Operatiboko komunikazio ekintzak indartzea

Sailak eskualde-politikaren alorrean dituen eskumenen esparruan, Ekonomia eta Plangintzako Zuzendaritzari esleitu izan ohi zaio «*Euskal Autonomia Erkidegoan Europar Batasunaren esku-hartze programak eta ekimenak prestatzea, horien jarraipena egitea eta kontrolatzea, europar eskualde-politikaren arloan*». Halaxe dio Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen ekainaren 13ko 168/2017 Dekretuaren 10.1 n) artikulua.

Testuinguru horretan kokatzen da, hain zuzen ere, 2007-2013ko aldirako FEDER funtsaren Esku-hartze Komunitarioko Programaren Komunikazio Planaren ebaluazioan jasotako honako gomendio hau: gazteei FEDER funtsen berri ematea, eta, horretarako, bereziki haiei zuzendutako jarduerak diseinatzea. Helburu horri erantzunez egin izan da, azken zazpi ekitaldietan, “Non ikusten duzu Europa Euskadin?” gazteei zuzendutako argazki-lehiaketa. Ekimen horrekin Europa hurbildu nahi zaie euskal gazteei, Europak euren inguru hurbilena garatzen nola lagundu duen argazki batean irudikatzeko gonbita eginez. Aurreko aldien arrakasta ikusita, 2019an ere berriro antolatzeko asmoa dago, agerian geratu baita neurri bikaina dela gobernu organo horretan komunikazioan egiten diren langintzak indartzeko.

Planaren ardatz estrategikoei eta dirulaguntza lerroek bat egiten dute XI. legegintzaldirako gobernu programarekin, zeinak lau oinarri dituen, tartean honako hau: “Enplegua, ekonomiaren suspertzea eta jasangarritasuna”. Ildo berean, oinarri horren ardatzen artean hazkunde sendoa dago, honako konpromiso hauek hartzen dituen besteak beste: “enpresa txiki eta ertainei lagundu eta zailtasunak dituzten enpresak berregituratu” eta “ekintzailtzari lagundu”. Beste ardatzetako bat hazkunde arduratsu, moderno eta gardena da, eta honako hau dago haren egitekoen artean: “2014-2020ko aldirako Euskadiko Feder Plan Operatiboaren kudeaketa eraginkorra”.

- Ekonomia Ituna eguneratzea eta defendatzea

Legegintzaldi honetako Gobernu Programan, Ogasun eta Ekonomia Sailak “kontzertu Ekonomikoa eguneratzeko eta defendatzeko” konpromisoa hartzen du.

Ogasun eta Ekonomia Sailak positibotzat jotzen du finantza-tresna horren ezagutza zabaltzea euskal herritarren artean, tresna horrek gizartean duen erabilgarritasunaren jakitun izan daitezen, eta euskal herritarrei finantzaketa-tresna hori ezagutzeko eta horretan sakontzeko aukera



eskaintzea. Hori dela eta, legegintzaldiko hiru urte hauetan hainbat kolektibori zuzendutako hainbat jarduera garatu ditu.

Ekitaldi honetan, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak egokitzen joan diren eskualdeko finantzaketa-tresna horretara hurbiltzeko bide bat eskaintzea. Tresna hori, zehazki, biztanleriaren sektore jakin bati zuzenduta dago, eta erabakigarria izango da etorkizunean KAEren garapenerako, hau da, euskal unibertsitateetan ikasten duten pertsonen.

Horretarako, aipatutako unibertsitateetako ikasle-taldeak irabaziko duen unibertsitate-esparruko lehiaketa bat diseinatzea erabaki da, Euskal Ekonomia Itunari buruzko ezagutza handiagoa erakusteko.

Lehiaketaren formula hori, atsegina eta dinamikoa izan nahi duena, ezin hobea da dibulgazio-ekintzaren hartzaile diren ikasleen interesa eta inplikazioa bereganatzeko, eta zeharkako ekintza pedagogiko eta sustatzaile gisa planteatzen da, Ogasun eta Ekonomia Sailari ez ezik, Hezkuntza Sailari ere eragiten diona, bere eskumen-eremuen arabera.

IV. Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak

Jarraian planaren ardatz estrategikoak eta dirulaguntza-lerroak jarri ditugu zerrendan, saileko unitate organiko bakoitzeko, zirkularraren 1. eranskineko 3. ataleko a), b) eta c) alderdiak zehazteko:

FINANTZA-POLITIKAKO ZUZENDARITZA
6311. programa

1. helburu estrategikoa: Euskadin Borondatezko Gizarte Aurreikuspena lagundu eta sustatzea

Dirulaguntzen 1. lerroa: Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspenen Federaziorako, funtzionamendua eta bestelako sustapen-ekintza batzuk lantzeko.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Xedea: Euskadiko BGAE Federazioa laguntzea egiten dituen gizarte-aurreikuspen osagarriko jardueretan.

1. *ekintza:* Gizarte-aurreikuspen osagarrien inguruko oinarrizko ikastaroa antolatu eta emateko, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetako gobernu-batzordeetako kideei eta EHUko ikasleei.

2. *ekintza:* Gizarte-aurreikuspen osagarrien inguruko ikastaro aurreratua antolatu eta emateko, borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetako gobernu-batzordeetako kideei.

2. *ekintza:* Gizarte-aurreikuspen osagarriak bultzatu eta lantzeko jardunaldiak antolatzeko.

4. *ekintza:* Federazioak gizarte-aurreikuspen osagarria sustatzen egindako lana laguntzea.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 18.000 euro, ezarritako baldintza batzuk betetzeko baldintzarekin, eta, egindako lanak kontuak izanik, dirulaguntzetarako gehieneko ehuneko batzuk ezarrita.

06 6311 12 45499 002

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Zer sektoretarako: Euskadiko BGAE Federazioa

Emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna, Ogasun eta Ekonomia sailburuak agindu bidez emana.

Dirulaguntzen 2. lerroa: Abenduaren 12ko 252/2006 Dekretuan oinarrituta eratuko diren enplegurako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde berriei. Dekretu horrek borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen bidez gauzatu diren gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak arautzen ditu.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Xedea: Enplegu modalitateko lehenasunezko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde berriak eratzen laguntzea.

1. *ekintza:* Dirulaguntza eman, dekretu honetan ezartzen diren betekizunak betetzen dituzten gizarte-aurreikuspen osagarrien sistemak eratzen eta abiarazten sortutako gastuei aurre egiteko. Gastu horien artean hauek daude: elkartekideak informatzeko gastuak, sistema informatikoak, higiezinak, soldata eta lansariak, eta notarioko gastuak.

2. *ekintza:* Dirulaguntza ematea gizarte-aurreikuspen osagarriko sistemak eratu eta abiarazi aurretik sortzen diren gastuetarako; hain zuzen, kanpoko aholkularitzen azterlan juridiko eta ekonomikoetarako, bestelako aukeren azterketarako, kolektiboaren balioespenak egiteko, akordioak instrumentalizatzeko, eta hedapen- zein sustapen-kanpainak burutzeko.

3. *ekintza:* Erakunde berrira edo enplegurako gizarte-aurreikuspeneko plan berrira gehituko diren kideei gizarte-aurreikuspen osagarriko zuzeneko dirulaguntzak ematea.

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 24.000€
06 6311 12 45499 003

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Zer sektoretarako: EAEko BGAEtarako

Emateko prozedura: abenduaren 12ko 252/2006 Dekretuanaurreikusitakoa. Dekretu horrek arautu ditu borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen bidez bideraturiko gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzeko laguntza ekonomikoak, gaian eskumena duen sailburuordearen ebazpen bidez emango direnak.

2. helburu estrategikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru-bitartekari tituludunak sustatzen eta garatzen laguntzea, prestakuntza bultzatuz.

Dirulaguntzen 1. lerroa: Aseguru Bitartekarien Kontseiluari, haren funtzionamendurako eta bestelako sustapen eginkizunetarako.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Xedea: Euskadiko Aseguru Bitartekarien Kontseiluari laguntza ematea prestakuntza ikastaroak antolatzeko eta bitartekaritza eta Euskadiko Bitartekarien Erregistroa sustatzeko.

1. *ekintza:* Hainbat prestakuntza-ikastaro antolatu eta ematea Bitartekarien Kontseiluaren eskutik.

2. *ekintza:* Elkargo-kideen artean bideratu nahitaezko teletramitazioa: bai Finantza Politiketako Zuzendaritzako egoitza elektronikoko erregistro-agirietarako (aseguru-bitartekariak hemen burutu behar dituzte EAEko Aseguru-bitartekarien, Berraseguru-artekarien eta beren goi-karguen Erregistro Bereziaren inguruko administrazio-izapide guztiak, aurretik identifikatu behar badute), bai eta amaitutako ekitaldi ekonomikoari buruzko kontabilitate-informazio estatistikoa ere (erregistro horretan izena emandako aseguru-bitartekariak urtero Finantza Politiken Zuzendaritzari bidali beharrekoa).

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 15.000 euro
06 6311 12 45499 001

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Zer sektoretarako: Euskadiko aseguru-bitartekariak.

Emateko prozedura: Dirulaguntza izenduna, Ogasun eta Ekonomia sailburuak agindu bidez emana.

3. helburu estrategikoa: *Enpresa txiki eta ertainetarako eta enpresari indibidualentzat finantzaketa-aukerak sustatzea, dela eragiketa zirkulatzailletarako dela inbertsio eragiketarako.*

Dirulaguntzen 1. lerroa: Elkar bermatzeko sozietate baten abala duten partaidetzazko maileguren eta bermeen komisioen interes-tasa diruz laguntzea, eta sozietateok dituzten kobraezinei estaldura partziala eskaintzea partaidetzazko mailegu multzoarentzat.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Xedea: Luzaro SAK partaidetzazko maileguak ematea sustatzea, euskal enpresa txiki eta ertainentzako zein enpresari indibidualentzako finantzaketa tresna gehigarri izan daitezen, baita sozietate horren epe luzerako finantza-kontsolidaziorako maileguetarako ere.

1. ekintza: Partaidetzazko maileguak eman eta finantza sendotzeko babes-programa sortu. Ekintza zehatzak:

- Finantzetan lankidetzan jarduteko Luzaro EFC, S.A. enpresarekin sinatutako hitzarmena aldatu, Euskadiko ETE eta enpresariei laguntzeko babes-programako finantza, lege eta prozedura-baldintzak eguneratzeko.
- Finantza-lankidetzaren hitzarmena kudeatu.

Adierazleak:

Hitzarmenari zenbat eguneratze eta aldaketa egin zaizkion: 1

Interes-tasen eta abal-komisioen dirulaguntzen sei ordainketa: 6

Hitzarmenetik eratorritako kobraezinen ordainketak (hiru hilekoak): 4

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa:

19.0.1.06.12.0000.4.751.02.63110.002/P 1.000.000€

Ekitaldi horretan ETEi finantzazioa ematearen kostua murrizteko laguntza Luzarori.

19.0.1.06.12.0000.4.751.02.63110.003/T 90.000€

Aurreko ekitaldietan ETEi finantzazioa ematearen kostua murrizteko laguntza Luzarori.

19.0.1.06.12.0000.4.282.11.63110.001/T 405.000€

Luzaro EFCK exekutatuak

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Zer sektoretarako: Enpresa txiki eta ertainak eta enpresari indibidualak.

Emateko prozedura: 2012ko ekainaren 12ko hitzarmena, EAEko administrazioaren, finantza-erakundeen, elkar bermatzeko sozietateen eta Luzaro EFC, S.A.ren arteko finantza-lankidetzarako, eta horren ondorengo aldaketak.

Dirulaguntzen 2. lerroa: Kobraezinak estali, eta elkarrekiko berme-sozietateetako hornidura teknikoen funtsak indartu.

b) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Xedea: Elkar bermatzeko sozietateen jardura indartzea, bertako kideentzat (enpresa txiki eta ertainak edo enpresari indibidualak) finantzabideak errazten dituzten erakunde mutualistak direnez.

1. *ekintza*: Aurrekontu txosteneko ekintza: enpresa txiki eta ertainei zein enpresari indibidualei finantzaketa kostuak murrizten laguntzea, erakunde horiek abalatuta dituzten arriskuak birfinkatuz. Ekintza zehatzak:

- Indarrean diren birfinkapen-hitzarmenak aldatu, hitzarmeneko baldintza finantzarioak eguneratzeko.
- Hitzarmenak bete aldizkako likidazioak eginez.
- Elkar bermatzeko sozietateetako probisio teknikoen funtsa sendotzeko dirulaguntza kudeatzeko hitzarmen berria taxutu.

Adierazleak:

Eguneratutako hitzarmenak: 3

Hornidura teknikoen hitzarmenak: 1

Hitzarmenetik eratorritako kobrazinen lau ordainketa (hiruhileko ordainketak): 4

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa:

19.0.1.06.12.0000.4.751.02.63110.001/K 552.000€

Probisio teknikoko funtserako dirulaguntza

19.0.1.06.12.0000.4.282.11.63110.002/K 5.181.250€

Birfinkapen-hitzarmena.

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Zer sektoretarako: Elkarrekiko Berme Erakundeak, eta ETEak nahiz enpresari indibidualak.

Emateko prozedura: Elkargi, EBSarekin 2018ko azaroaren 26an sinatutako oinarrizko hitzarmena eta birfinkatzeko hitzarmen osagarria. EBSaren probisio teknikoen funtserako dirulaguntzak kudeatzeko hitzarmen berria.

EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA
6111. programa

1. helburu estrategikoa: *Europar Batasuneko eskualde mailako esku-hartze bitartekoak kudeatzea EAEn: Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (FEDER) lagundutako programei jarraipena egin, exekuzio burutu eta kontrola eraman. Euskadiko FEDER Programa Operatiboko komunikazio-ekintzak indartu.*

Dirulaguntzen 1. lerroa: VIII. “Non ikusten duzu Europa Euskadin?” argazki-lehiaketa.

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Xedea:

- EAeko gazteei ezagutzera ematea garapen ekonomikoa bultzatzeko egindako inbertsio, proiektu eta ekimenak finantzatzen dituen FEDER funtsak nola parte hartzen duen eskualdearen garapenean.
- Euskadiko gazteengan interesa sortu Europari buruzko alor eta gaitan, haietzako egokia den hizkera erabilia.
- Gazteen artean sare sozialen erabilera finkatzea, hedabide diren aldetik Europaren berri eta Europako egituraren berri izan dezaten.

1. ekintza: Argazki-lehiaketa antolatzea

Adierazleak:

Argazki-lehiaketa 1 urtean

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 1.500 €

19.0.1.06.11.0000.4.453.01.61110.001/P

Finantzazioa: % 50 FEDER bidez

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Norentzat: 14 eta 25 urte bitarteko gazteentzat.

Emateko prozedura: Lehiaketaren oinarri arautzaileak onesteko agindua eta lehiaketaren deialdia, Ogasun eta Ekonomia Sailburuaren aginduaren bitartez.

**Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza
6110 programa**

1. helburu estrategikoa: Kontzertu ekonomikoaren finantza-tresnaren erabilgarritasuna zabaltzea euskal unibertsitate-ikasleen artean, gure autonomia-erkidegoaren etorkizunean duen garrantziaz jabetu dadin.

Dirulaguntzen 1. lerroa: «Quizz 41.- Zenbat dakizu Euskal Kontzertu Ekonomikoaz?» Unibertsitate-esparruko lehiaketa

a) HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Xedea:

- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetako ikasleei eskualdeko finantzaketa-tresna horren garrantzia ezagutaraztea, lehiaketa-lehiaketa edo -proba batean parte hartzean zuzenean inplikatur, interes publikoa duen gai baten alderdi pedagogikoa eta sustapen-ekintza bateratzen baititu.

1. *ekintza*: «Quizz 41.- Zenbat dakizu Euskadiko Kontzertu Ekonomikoaz?» Lehiaketaren antolaketa

Adierazleak:

Unibertsitateko lehiaketa bat urtean

b) AURREKONTU-KONPROMISOAK

Zenbatekoa: 10.000 €

19.0.1.06.02.0000.1.453.01.61100.000.G

c) SEKTORE HARTZAILEAK ETA DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Norentzat: Ikasketak Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetako batean egiten dituzten unibertsitate-gazteak

Emateko prozedura: norgehiagoka: lehiaketa batean parte hartzea, eta ematen diren sarien irabazleak lehiaketa horretan parte hartzea. Sariak ikasketak egiteko bekak lortzea dira..